OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2011ko IRAILAREN 23an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO CELEBRADO EL 23 DE SEPTIEMBRE DE 2011.**

**Olaberrian, 2011ko irailaren 23an, eguerdiko 12:10ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea, Jokin Garmendia Asurabarrena , Jose Manuel Garrido Fernandez, Amaia Cuellar González, Jose Antonio Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti, Iñigo Sarasola Aranzasti eta Gema Echaniz Badiola, zinegotziak.**

**En Olaberria, a 23 de septiembre de 2011, siendo las 12:10 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde Jokin Garmendia Asurabarrena, los concejales Jose Manuel Garrido Fernandez, Amaia Cuellar González, Joseba Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti, Iñigo Sarasola Aranzasti y Gema Etxaniz Badiola.**

**Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito Idazkari Kontuhartzaileak.**

**Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.**

**Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.**

**Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, el Alcalde declara abierta la sesión pasándose a examinar el primer asunto del Orden del Día.**

**AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.**

Alkateak, onartzeko dauden Akten berri ematen du:

- 2011ko ekainaren 23ko Ez Ohiko Batzarraren Akta.

- 2011ko uztailaren 21eko Ohiko Batzarraren Akta.

2011ko ekainaren 23ko ez-ohiko Bilkuraren aktari dagokionez, Jose Bernardo Aldasoro

**APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LA SESIONES ANTERIORES.**

El Alcalde informa de las actas que se traen para su aprobación:

- Acta del Pleno extraordinario del 23 de junio de 2011.

- Acta del Pleno Ordinario de 21 de julio de 2011.

En relación al acta del Pleno Extraordinario del 23 de junio de 2011 el concejal Jose

zinegotziak dio, Herribaso 48 eremuko urbanizazio proiektuaren onarpenean ez zuela aurkako botoa eman aktan agertzen den bezala, baizik eta aldekoa eman zuela.

Bernardo Aldasoro manifiesta que en relación al proyecto de urbanización del Sector 48 Herribaso, él votó a favor y no en contra como se recoge en el acta.

Idazkariak zuzenketa hori egingo du.

La Secretaria responde que corregirá ese extremo.

Bi aktak bozkatzen dira, aho-batez onartzen direlarik.

Se procede a la votación de ambas actas y se aprueban por unanimidad.

**ALKATETZAKO GAIAK**

**TEMAS DE ALCALDIA**

**ALKATETZA-EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Alkate jaunak aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena ematen du, jarraian aipatzen direnak izanik:

-75/2011: Txara Baztarra baserriaren lehen okupaziorako lizentzia ematea.

-76/2011: egurra garraiatzeagatik pista publikoen erabilerarako baimena.

-77/2011: egurra garraiatzeagatik pista publikoen erabilerarako baimena.

- 78/2011: egurra garraiatzeagatik pista publikoen erabilerarako baimena.

-79/2011: egurra garraiatzeagatik pista publikoen erabilerarako baimena.

-80/2011: egurra garraiatzeagatik pista publikoen erabilerarako baimena.

-81/2011: egurra garraiatzeagatik pista publikoen erabilerarako baimena.

-82/2011: bigarren hiruhilabeteko zaborraren fakturazioa.

-83/2011: esnerako behien abeltzaintzako ustiapenerako nabe baten berreraikuntzarako lizentzia.

**DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.**

El señor Alcalde informa de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno, que son los siguientes:

- 75/2011: concesión de licencia de primera ocupación del caserío Txara Baztarra.
- 76/2011: permiso por utilización de pistas públicas por traslado de madera.
- 77/2011: permiso por utilización de pistas públicas por traslado de madera.
- 78/2011: permiso por utilización de pistas públicas por traslado de madera.
- 79/2011: permiso por utilización de pistas públicas por traslado de madera.
- 80/2011: permiso por utilización de pistas públicas por traslado de madera.
- 81/2011: permiso por utilización de pistas públicas por traslado de madera.
- 82/2011: facturación del 2º trimestre de basura.
- 83/2011: solicitud de licencia para la reedificación de nave de explotación de vacuno de Leche.

-84/2011: udal eraikuntza eta instalazioen garbiketa zerbitzua arautuko duten pleguen zein lizitazio prozeduraren hasieraren onarpena.
-85/2011: Korrikarentzat kilometro baten erosketa.
-86/2011: pista publikoetatik egurra garraiatzeagatiko tasa kobratzea.
-87/2011: kantauri isurialdeko konfederazioak Olaberriko Udalari ezarritako isunaren ordainketa.

-88/2011: bidegabeko diru-sarreren itzulera eskaera.
-89/2011: 2011ko bigarren hiruhilabeteko ur eta zaborren zergaren erroda fiskala jendaurrean jartzea.

-90/2011: 3.000 eurotik beherako fakturen onarpena.
-91/2011: Olaberriko udal instalakuntza eta eraikinen garbiketa zerbitzuaren esleipena.
-92/2011: ludoteka zerbitzuaren kontratuaren luzapena.
-93/2011: Olaberriko Etxesaga baserriko teilatuaren erreformarako lizentzia eskaera.
-94/2011: Iriarte baserriko etxaguntza baten segregazio baimena ematea.

-95/2011: Olaberriko Udalak 2011ko ekainaren 22ko ebazpenaren aurka ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan aurkezpena.

-96/2011: Harizti industrialdean dagoen lursail zati baten kalifikazio juridikoaren aldaketa. Domeinu publikoko izaera edukitzetik ondarezko izaera edukitzera pasatzea.
-97/2011: Harizti industrialdean dagoen lursail zati baten kalifikazio juridikoaren aldaketa. Domeinu publikoko izaera edukitzetik ondarezko izaera edukitzera pasatzea.

Udal kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

- 84/2011: aprobación de los pliegos e inicio del procedimiento de licitación del servicio de limpieza de edificios e instalaciones municipales.
- 85/2011: compra de kilómetro para Korrika.
- 86/2011: cobro de tasa con ocasión de traslado de madera por pista pública.
- 87/2011: abono de multa impuesta por la confederación hidrográfica del cantábrico al Ayuntamiento de Olaberria.
- 88/2011: solicitud de devolución de ingresos indebidos.
- 89/2011: exposición al público del padrón fiscal del impuesto de agua y basuras del segundo trimestre de 2011.
- 90/2011: aprobación de facturas de cuantía inferior a 3.000 euros.
- 91/2011: adjudicación del servicio de limpieza de edificios e instalaciones públicas del municipio de Olaberria.
- 92/2011: prórroga del contrato del servicio de ludoteca.
- 93/2011: solicitud de licencia para reforma de la cubierta del caserío Etxesaga de Olaberria.
- 94/2011: concesión de licencia de segregación de pertenecido del caserío Iriarte de Olaberria.
- 95/2011: personación en el recurso contencioso administrativo interpuesto contra resolución del Ayuntamiento de Olaberria de 22 de junio de 2011.
- 96/2011: inicio del expediente de cambio de calificación jurídica de bien demanial a bien patrimonial. Porción de terreno polígono industrial harizti.
- 97/2011: inicio del expediente de cambio de calificación jurídica de bien demanial a bien patrimonial. Porción de terreno polígono industrial harizti.

Los Corporativos quedan al corriente.

**2011KO EKAINAREN 22AN ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAREN AURKA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAN UDALAREN PARTEHARTZEA (340/2011 PROZEDURA ARRUNTA).**

Alkateak dio joan zen batzorde informatzaileetan udal-kideei gaiaren berri eman zitzaiela, agiri guztiak dagokion espedientean daudelarik.

**PERSONACIÓN DEL AYUNTAMIENTO EN EL RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO CONTRA LA RESOLUCIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA DE FECHA 22 DE MAYO DE 2011 (PROCEDIMIENTO ORDINARIO 340/2011).**

El Sr. Alcalde expone que los corporativos fueron informados en las pasadas comisiones informativas y que toda la documentación obra en el correspondiente expediente.

## AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZAKO GAIAK

**HERRIGUNE 1 SEKTOREKO HJE 1.7 EREMUAN 12 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO BALDINTZA PLEGUAK: BEHIN BEHINEKO ONARPENA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

Alkateak dio joan zen batzordeetan udal-kideei gaiaren berri eman zitzaiela.

Aldasoro jaunak bi norabideetako bialaren exekuzioa plegutan txertatu den galdetzen du, Alkateak erantzuten diolarik ez dela propioki baldintza bezala jaso plegutan, baizik eta hobekuntza bezala kontutan hartuko dela.

Gaia bozkatzen da, gehiengo absolutuz onartzen delarik OHE taldearen zinegotzia den Jose Bernardo Aldasororen abstentzioarekin.

Sarasola jaunak, bere taldeak aldeko botoa ematen duela esaten du, beti ere, bialari lehentasuna ematen bazaio.

## TEMAS DE INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO

**PLIEGO DE CONDICIONES PARA LA CONSTRUCCIÓN DE 12 VIVIENDAS EN LA UAU 1.7 DEL SECTOR 1 HERRIGUNE: APROBACIÓN INICIAL Y DAR INICIO A LA LICITACIÓN PÚBLICA.**

El Alcalde manifiesta que se expuso el tema a los concejales en las pasadas comisiones informativas.

El Sr. Aldasoro pregunta a cerca de si se ha incluído en los pliegos la ejecución del vial de doble sentido, a lo que el Alcalde responde que no se ha incluído propiamente como condición, pero que se tendrá en cuenta como mejora.

Se procede a la votación quedando aprobada la propuesta por mayoría absoluta con la abstención del concejal de OHE Jose Bernardo Aldasoro.

El Sr. Sarasola manifiesta que su grupo vota a favor, siempre y cuando se de prioridad al vial.

**ALTUNE EREMUAN BETELAN BATEN**

**PLIEGO DE CONDICIONES PARA LA**

**EXEKUZIOA ARAUTUKO DUTEN PLEGUAK: BEHIN BEHINEKO ONARPENA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

Alkateak dio joan zen batzorde informatzaileetan udal-kideei gaiaren berri eman zitzaiela, agiri guztiak dagokion espedientean daudelarik.

Gaia bozkatzen da proposamena aho-batez onartzen delarik.

Sarasola jaunak ñabardura bat egin nahi du: betelana egin ondoren lurra txukundu behar baldin bada, bertan landatuko diren arbolak autoktonoak izatea eskatzen du.

Alkateak dio lur-zati hau jabego publikoan legokela, beraz, plateatutakoa egiteko aukera izango dela, nahiz eta proiektuak berak ez zehaztu.

**EJECUCIÓN DE UN RELLENO EN LA ZONA DE ALTUNE: APROBACIÓN INICIAL Y DAR INICIO A LA LICITACIÓN PÚBLICA.**

El Sr. Alcalde expone que los corporativos fueron informados en las pasadas comisiones informativas y que toda la documentación obra en el correspondiente expediente.

Se procede a la votación quedando aprobada la propuesta por unanimidad.

El Sr. Sarasola desea hacer una puntualización: en el caso de que tras la realización del relleno sea necesaria el acondicionamiento del terreno, solicita que los árboles que se planten sean autóctonos.

El Alcalde responde que esa parcela es de carácter público y que cabría esa posibilidad aunque no se contemple en el proyecto.

**OLABERRIKO UDALERRIAREN HIRIGINTZAKO PLANGINTZA OROKORRAREN LURRALDEAREN GAUR EGUNEKO BALDINTZEKIKO EGOKITZAPENA BALORATZEKO AURREKO TXOSTENA: HONEN ONARPENA.**

Alkateak dio joan zen batzorde informatzaileetan udal-kideei gaiaren berri eman zitzaiela, agiri guztiak dagokion espedientean daudelarik.

Gaia bozkatzen da proposamena aho-batez onartzen delarik.

**INFORME PREVIO PARA LA VALORACIÓN DE LA ADECUACIÓN DEL PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DEL MUNICIPIO DE OLABERRIA A LAS CONDICIONES ACTUALES DEL TERRITORIO: APROBACIÓN DEL MISMO.**

El Sr. Alcalde expone que los corporativos fueron informados en las pasadas comisiones informativas y que toda la documentación obra en el correspondiente expediente.

Se procede a la votación quedando aprobada la propuesta por unanimidad.

**OLABERRIKO HARIZTI INDUSTRIALDEAN DAUDEN BI LUR ZATI DOMEINU PUBLIKOTIK DESAFEKTATZEKO PROZEDURAREN HASIERA.**

Alkateak dio joan zen batzorde

**INICIO DEL EXPEDIENTE DE DESAFECTACIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO DE DOS PARCELAS SITAS EN EL POLÍGONO HARIZTI DE OLABERRIA.**

El Sr. Alcalde expone que los corporativos

informatzaileetan udal-kideei gaiaren berri eman zitzaiela, agiri guztiak dagokion espedientean daudelarik.

fueron informados en las pasadas comisiones informativas y que toda la documentación obra en el correspondiente expediente.

Gaia bozkatzen da proposamena aho-batez onartzen delarik.

Se procede a la votación quedando aprobada la propuesta por unanimidad.

**OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK**

**HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES**

**3.000 EUROTIK GORAKO FAKTUREN ONARPENA.**

**APROBACIÓN DE LAS FACTURAS SUPERIORES A 3.000 EUROS.**

Ondoko faktura hauek aurkezten dira onarpenerako.

Se presentan para su aprobación las siguientes facturas:

| ZBK. | IZENA | AZALPENA | KOPURUA |
|---|---|---|---|
| 1 | EULEN, S.A | FRA.2449222 | 3.398,73 € |
| 2 | ASFALTOS URRETXU, S.A. | FRA. 11/00322 | 30.748,51 € |
| 3 | GOROLDI, S.L.U. | FRA 1101103 | 3.073,43 € |
| 4 | CONSTRUCCIONES PEDRO IPARRAGIRRE, S.L. | FRA. 035/2011 | 28.209,30 € |
| 5 | EXCAVACIONES GALERA, S.L. | FRA. 50/2011 | 3.320,15 € |
| 6 | EULEN, S.A. | FRA. 2436551 | 3.398,73 € |
| 7 | GOROLDI, S.L.U. | FRA. 1100951 | 3.073,43 € |
| 8 | CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI, S.A. | FRA. 207 | 38.799,08 € |
| 9 | AISI HEZI | FRA.009 | 7.363,00 € |

Fakturak bozkatzen dira aho-batez onartzen direlarik.

Se procede a votar las facturas que son aprobadas por unanimidad.

**DIRUZAINTZAREN EGOERA. INFORMAZIOA.**

**SITUACIÓN DE TESORERÍA. INFORMACIÓN.**

Udal - kideei 2011eko uztailaren 11ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkezten zaie, jarraian aipatzen dena izanik:

Se presenta a los corporativos la situación de tesorería a fecha 11 de julio de 2011, que es la siguiente:

**DIRUZAINTZAREN EGOERA**
**Situación de Tesorería**
**12/09/2011**

| KONTU ZENBAKIA | ZENBATEKOA |
|---|---|
| Udaletxeko Kutxa/CAJA | 1.301,82 € |
| BBVA : 182-5709-40-0010010102 | 85.867,04 € |
| KUTXA: 2101-0298-63-0000089342 | 84.684,91 € |
| EUSKADIKO KUTXA: 0880700025 | 42.588,29 € |
| **GUZTIRA/TOTAL** | **214.442,06 €** |

**EPE LABURRERA EGINIKO INBERTSIOAK**
**INVERSIONES A CORTO PLAZO**

| | |
|---|---|
| BBVA (plazo fijo) cta. | 530.000,00 € |
| KUTXA Plazo | 0,00 € |
| CLP PLAZO | 0,00 € |
| **EPE LABURRERA GUZTIRA/TOTAL INVERSION C/P** | **530.000,00 €** |
| **GUZTIRA/TOTAL** | **744.442,06 €** |

Udal kideak jakinaren berri gelditzen dira.

Los Corporativos quedan al corriente.

Alkateak, galdera eta erregu atalean sartu baino lehen, Korporazioko Idazkariari hitza ematen dio:

El Alcalde, antes de entrar en la fase de ruegos y preguntas cede la palabra a la Secretaria de la Corporación:

“ Zinegotzi guztioi honako hau gogorarazi nahi dizuet:

“ Quiero recordar lo siguiente a todos los Concejales:

Zinegotzi karguaren baitan, udaletxean dagoen informazioa jasotzeko daukazuen eskubide eta ahalmen berezi horrek, betetzea funtsezkoa den obligazio bat dakar berarekin.

La facultad y el derecho que tenéis como Concejales de obtener la información obrante en las dependencias del Ayuntamiento, conlleva una obligación de obligado cumplimiento.

Araudia oso argia da zentzu honetan eta hala dio zehatz-mehatz (gaztelaniaz): art.16.3 ROF.

La normativa es muy clara en este sentido y así se expresa textualmente el artículo 16.3 del ROF. en este sentido:

*“Los miembros de la Corporación tienen el deber de guardar reserva en relación con las informaciones que se les faciliten para hacer posible el desarrollo de su*

*función, singularmente de las que han de servir de antecedente para decisiones que aún se encuentren pendientes de adopción, así como para evitar la reproducción de la documentación que pueda serles facilitada, en original o copia, para su estudio.”*

Era berean gogorarazten dizuet betebehar honen konplimendu ezak gutxienez, erantzukizun administratiboa ekarri dezakeela. “

Quiero recordar asimismo, que el incumplimiento de esta obligación puede ser, al menos, objeto de responsabilidad administrativa. “

Idazkariak esandakoaren ondoren, Alkateak hitza hartzen du honako aipamen hau egiteko: Legealdi honen hasieratik onartzen joango diren aktak Udalaren web orrian argitaratuko direla nahi duen edonork kontsulta ditzan.

Tras la intervención de la secretaria el Alcalde toma la palabra para decir que ha tomado la decisión de que todas las actas que se vayan aprobando desde el inicio de esta legislatura, se van a publicar en la página web del Ayuntamiento para que estén disponibles para su consulta.

**GALDERA ETA ERREGUAK**

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Iñigo Sarasola BILDUko zinegotziak galdera-erregu hauek planteatzen ditu:

El concejal del grupo BILDU Iñigo Sarasola platea los siguientes ruegos / preguntas:

- **Alta tentsioko sarea**

- **Red de alta tensión**

Alta tentsioko sarea Gipuzkoa osotik igarotzen denaren informazioa helarazi zaio eta zenbait herrietatik igarotzeaz gain, Olaberritik ere pasatzen da. Informaziorik ba al dago horren inguruan?

Se le ha informado de que la red de alta tensión va a transcurrir por todo Gipuzkoa y que entre todos los municipios por los que transcurre, está Olaberria. Hay alguna información al respecto?

Alkateak erantzuten dio informazioa heldu dela Udaletxera eta udal arkitektoaren eskuetan dagoela gaiaren inguruko txostenaren igorpena.

El Alcalde responde que ha llegado información al Ayuntamiento y que está en manos del arquitecto municipal la emisión de un informe.

Dena den, dio, Olaberria afektatu bezala agertzen dela lehenago ere sarea hemendik pasatzen zelako, baina anpliazio horrek ez diola afektatzen.

Añade que, de todas maneras, Olaberria aparece como municipio afectado porque la red ya transcurre por aquí, pero que no le afecta esta ampliación.

- **Tiro zelaia eta honekin loturiko epaia.**

- **Tiro al plato y el juicio relacionado con el mismo.**

Sarasola jaunak honako idatzia irakurtzen du:

El Sr. Sarasola procede a la lectura del siguiente escrito:

Ebazpen horren arabera Olaberriko Udalak 2011ko ekainaren 22an ebatzitakoaren aurka ezarritako Administrazioarekiko errekurtsoan aurkeztuko da Udala.

GAIA Barrutiko Zelai-Tiroa kudeatzen duen " Club Olaberria dugu, eta BILDUk ondorengo hausnarketa hauek egin nahi ditu.

1.- Egoera honek udalaren eta Olaberriko herritarren arteko distantzia jartzen du aurren-aurrena begi aurrean. Izan ere, Tiro-Zelaiaren inguruan, olaberritar multzo bat informazio eta kexa agertzen aspaldi hasi baitzen, eta beraiekin harreman zentzuzkoa mantendu ordez, informazio hori apurka eta geldi eman izan baitio, azkenean, epai-bidera jo duen olaberritar talde horrek.

Azpimarratu nahi genuke, gainera, Administrarioaren aurrean ezarritako errekurtso a iritsi den arte, ez garela Tiro-Zelaiaren ingurura hitz egitera deituak izan.

2.- BILDU ados dago olaberritar talde honek Zelai-Tiroaren inguruan egiten dituen hausnarketa ekologikoekin. Garbi dago, dagoen tokian, Zelai-Tiro horrek ez duela betetzen inguru-giro legedia, eta kalte nabarmenak sortzen dituela ingurunean. Besteak beste, ondorengo hauek:

- **Kutsadura akustikoa**, bai kasko inguruko biztanleentzat eta baita bertara hurbiltzen diren paseatzaileei eragiten diena.
- **Lurren eta lur azpiko uren kutsadura**, plomo eta platerek eragina.
- **Oinezkoentzat eta inguruko baserritarrentzako eta bere ganaduentzako arriskua eta eragozpenak.**

3.- SALAKETA hauei , funtsean, Olaberriko Udalak berak arrazoi ematen die, Tiro Zelai horrentzako beste kokapen baten bila hainbat saio egin dituenez. Eta hala ere, ulergarria ez den puntu batetaraino, olaberritarron kexen aurka aurkeztu eta Legedia betetzen ez duen Zelai Tiroaren alde inolako garbitasunik gabe jokatzen. Udal honetako BILDUk, Olaberriko Udal honen izenean onartzen,eragiten eta bultzatzen dituen irregulartasunak herritarren agirian jarri nahi ditu :

- Zelai-Tiroko ekintzak onartu zirenean (1968-11-15ean) Club Olaberriaren eta udalaren artean 20 urtetarako hitzarmen edo konbenio bat sinatu zen. Hitzarmen haren epe-muga aspaldi amaituta dago, eta Club Olaberriko kudeatzaileak aldatu eta ekimena ekintza ekonomiko izatera pasatu den arren ( ordutegi eta egutegi luzapenekin ) udalak de facto onartu ditu aldaketa guztiok, olaberritarron kexei ez-erantzun eginez. Ez dugu uste beste ustiapen- hitzarmen batzuetan ( Zezilionea,kasu ), horrela jokatu duenik.

- Bidegabekeria horretaz gain, Zelai-Tiroa ustiatzekok Elkarte horrek ez du **Jarduera Lizentziarik**. Jarduera Lizentzia hori Udalak eman beharrekoa da, eta ez ematea, jardueraren ezegokitasuna onartzea da.

Jakina da, gainera, Jarduera Lizentzia hori gabe inork ezin **duela obra-lizentziarik** jaso. Udal-lurretan,ordea, Zelai-Tiroan obrak egiten ari dira.

Zelai .

Tiroko kudeatzailea ikusten dugu obretan. Baita udal-langileak ere. Are gehiago, aurreko legegintzan, orduko alkatea eta oraingoa ikusi ditugu obra horiek zuzenetik zaintzen.

Are gehiago, Udalak bere aurrekontutik ordaindu izan ditu bertako hainbat obra, balantzetan agertzen denez.

| KONTZEPTUA | KOPURUA |
|---|---|
| Estudio de cambio de Campo de Tiro.Erain | 1.902,4€ |
| Insonorización de Campo de tiro | 19.557,03€ |
| BESTE BATZUK | Ez dakigu zenbat |

Are gehiago, Olaberriko Udalak berak eskatu du Tiro-Zelai horretako etxetxoa konpontzeko diru-laguntza, eta jakin dugunaren arabera , ez dago horretarako inolako proiektu idatzirik. Olaberriko Udala, beraz, legezko ez den egoera baten bermatzaile jartzen da Foru Aldundiaren aurrean, esate batera, iruzur eginez.

Udalak, gainera, Tiro-Zelai inguruko jabekideen lurretan sartu eta eragiten du edo onartzen du hainbat langa jartzea, bereak ez diren sailetan. Jabe horiekin aldez aurretik hitz ere egin gabe.

Beraz, BILDUk ikusten du Tiro-Zelai honen inguruan, udalak burutzen dituen ekintzek ez dutela inolako logikarik, ikuspegi legal eta demokratiko batetik. Udal langileak, udal aurrekontuak, udal diru-laguntzak eskatzen eta zuzenean edo zeharka ematen zaizkio Tiro -Zelaiari, legeztatu ezinezkoa delako legeztatu gabe dagoen jarduera bat subentzionatuz.Hala ere,

- inon ez dago gauzak horrela eginda orain arte legea betetzen ez zuen Tiro -Zelaiak legea beteko duela adierazten duen azterketarik.
- Gainera, hitzarmenik gabe
- Ez dago inolako kontrol-mekanismorik, babesten eta laguntzen den jarduera ekonomiko hori kontrolatzeko . Ba al du udalak Elkarte horren urteko balantzerik? Ba al daki jarduera ekonomikoen zergarik ordaintzen duen, egunera dagoen Asegurantza Sozialarekin eta Ogasunarekin ? . Harreman bitxia hitzarmenik gabeko hau, non, esate batera, Club Olaberriren telefono zenbaki ofiziala Olaberriko anbulategiko fax zenbakia den.

- Ez dago inolako kontrol-mekanismorik jarduera hori kontrolatzeko ( egutegia, ordutegiak, aseguruak...)

Ez ditugu banan- bana adieraziko ikusten ditugun irregulartasun guztiak. Batzuk-batzuk bilkura honetara ekarri ditugu,aldez aurretik hartu den erabakian ( Tiro Zelaia ixtearenean ) ez baitugu parte hartu, eta orain, helegite kontentzioso-administratiboaren aurrean alkatetzaren erabakia berrestera

deitzen zaigulako.

Hori dela eta, eta aurreko burutapenen ondoren, zinegotziek eman behar duten botoa eman aurretik galdera zehatz bat ere egin nahi genuke.

**GALDETU NAHI DIOGU UDAL HONETAKO IDAZKARIARI,**

bere egitekoetako bat, zinegotziei aholku juridikoa ematea denez,

Udal Baimenik eta Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Saileko baimenik gabeko jarduera onartuz, gerta liteke Udal honen gehiengoa prebarikatzen aritzea, karguari dagozkion eginkizunak ez betetzeagatik. Horregatik galdetzen du BILDUk :

1.- LEGEZKOA al da BARRUTIAn kokatuta dagoen ZELAI TIROA Kudeatzen duen CLUB OLABERRIAren jarduera Udal honen aurrean ? BAI ala EZ ?

Eta eskatzen dugu zure erantzuna aktan agertzea.

**Eta honen aurrean PROPOSATZEN DUGU**

1.- Ez berrestea Alkatetzaren erabakia

2.- Udalak agintzeko Zelai Tiroaren Jardueren suspentsio kautelarra, horixe baita, legea betetzea eta Zelai Tiroaren gaia bere alderdi guztietatik aztertu eta egoera ingurune , berdintasun eta irizpide demokratikoen arabera bideratzeko aukera emango diguna.

3.-Azkenik, eskaera formal bat . Olaberriko udalaren aurkako helegitea, hainbat olaberritarrek sinatua izan zen. Olaberritar guzti horien izenak agertu behar dute udalak zabaldutako informazioak, talde horren aniztasuna errespetatua izan dadin.

4.- Azkenik, eskaera formal bat. Udal erabakiaren aurkako errekurtsoa Olaberritar talde jakin batek aurkeztu du, ez bakarrik Jon Zubiarrain Lasak. Talde horren aniztasuna islatzeko, eskatzen dugu udalaren 95/2011 dekretuan guztien izena agertzea.

OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

El Ayto. De Olaberria nos informa sobre el Decreto de Alcaldía 95/2011.El Decreto resuelve personarse en el recurso contencioso-administrativo interpuesto contra la resolución del Alcalde de fecha 22-6-2011.

EL TEMA que tratamos se refiere a las actividades del Club Olaberria que regentan el Campo de Tiro. BILDU desea hacer unas reflexiones con respecto a este tema .

1.- En primer lugar, el haber llegado a esta situación es una radiografía que refleja la distancia entre este ayuntamiento y las inquietudes de un grupo de olaberritarras, que hace tiempo comenzó a manifestar sus quejas con respecto a las actividades del Campo de Tiro y con el que no se ha tenido una adecuada relación y con el que se ha dado a destiempo y de forma poco adecuada la información , y a cuyas quejas se han hecho oídos sordos, por lo que, finalmente, han interpuesto un recurso contencioso-adminisitrativo.

También queremos subrayar que hasta que este recurso contencioso-administrativo no se ha interpuesto, no nos hemos reunido para tratar el tema.

2.- BILDU está de acuerdo con la lectura ecológica de este grupo de olaberritarras .Es evidente que este Campo de Tiro no cumple la normativa medio-ambiental. Algunas de las consecuencias de esta actividad son las siguientes :

- **Contaminación acústica**, tanto para los vecinos del casco, como para cualquier viandante.
- **Contaminación del suelo y de las aguas subterráneas** , debida al plomo y a los platos
- **Riesgos y graves molestias** tanto para los viandantes, como para las explotaciones agrícolas y ganaderas.

3.- El Ayto. de Olaberria, en realidad, no niega estas consecuencias ni el imcumplimiento de la legalidad vigente, ya que se ha planteado su reubicación .Y ,no obstante, de manera incomprensible, no apoya las peticiones de los olaberritarras sino que se posiciona del lado de quienes regentan al Club de Tiro . El grupo municipal de BILDU, ante lo anterior, desea poner de manifiesto antes los olaberritarras las irregularidades que el Ayuntamiento de Olaberria está amparando y promoviendo :

- Cuando fueron aceptadas las actuaciones del Campo de Tiro (15-11-1968) se firmó un convenio entre el Club Olaberria y el Ayuntamiento , con una vigencia de 20 años. El plazo concluyó hace mucho tiempo,

de aquellas actividades se ha pasado a una explotación económica de la actividad ( con cambios evidentes en el calendario y en el horario) y el Ayuntamiento no ha hecho más que aceptar todos estos cambios. No es la práctica común , como lo demuestra el seguimiento de otros convenios ( el caso reciente de Zezilionea) y sin embargo, no hay ninguna explicación.

- Además de esta irregularidad, el Club de Olaberria no poseen Licencia de Actividad. Es el Ayuntamiento quien debe conceder dicha Licencia de Actividad, y el hecho de que no la conceda, significa, de hecho, que esta actividad no está legalizada.

Es evidente, además, que dicho Club no puede obtener Licencia de obras, sin tener previamente dicha licencia. Sin embargo, en terreno municipal, se están realizando obras. Observamos que la persona a cargo del Campo de Tiro realiza acometidas, así como los trabajadores del Ayuntamiento. Es más, en la legislatura anterior tanto el alcalde saliente como el actual han supervisado dichas obras.

Incluso en el Balance del Ayuntamiento aparecen algunas partidas destinadas al Campo de Tiro.

| KONTZEPTUA | KOPURUA |
|---|---|
| Estudio de cambio de Campo de Tiro.Erain | 1.902,4€ |
| Insonorización de Campo de tiro | 19.557,03€ |
| VARIOS | Desconocemos las cantidades |

Incluso el Ayuntamiento de Olaberria ha solicitado subvención para arreglar la caseta del Campo de Tiro, situándose ante otras administraciones ( Diputacion de Gipuzkoa) como garante de una actividad sin licencia, y , por lo que hemos sido informados, sin que exista ningún proyecto de obras.

El Ayuntamiento, además, ha invadido los terrenos de copropietarios , instalando cadenas y vallado en terrenos que no son municipales, y sin haber consultado previamente con los propietarios.

Por todo esto. BILDU considera que el Ayuntamiento no está actuando con ninguna lógica ( a no ser que haya otra lógica oculta ) desde el punto de vista legal y de los principios democráticos, y que utilizando partidas y trabajadores municipales está subvencionando una actividad que no puede legalizar, porque no cumple la normativa. Y sin embargo

- No se dispone de ningún estudio que afirme que con estas u otras acometidas el Campo de Tiro pudiera ser legalizado

- Además, sin convenio actualizado . No se puede prever ningún

mecanismo de control, sobre la actividad económica que se subvenciona. Por ejemplo, ¿dispone el Ayto. de algún Balance de Club Olaberria, sabe si paga los impuestos de actividades económicas, si el Club está al corriente con la Seguridad Social y con Hacienda ? Sin embargo, el nº de teléfono oficial de" Club de Olaberria" se corresponde con el nº de Fax del ambulatorio . (

[X] Tampoco existe ningún mecanismo de control de la actividad ( calendario, horario, seguros que cubran daños a terceros...).

No vamos a extender en enumerar otras posibles irregularidades. Hemos traído algunas a este pleno, para promover la reflexión de los concejales, en este pleno en el que se trata de un tema que antes no ha sido sometido a votación y en el que ahora se nos pide ratificar una decisión no sometida a votación, ahora que existe un contencioso -administrativo.

**Por todo ello, y antes de que los concejales votemos,**

**PREGUNTAMOS A LA SECRETARIA DEL AYUNTAMIENTO**

Una de cuyas funciones es ofrecer asesoramiento jurídico a los concejales

Puede que la mayoría de este Ayuntamiento este prevaricando por incumplimiento de las obligaciones propias del cargo por parte de un funcionario al estar permitiendo una actividad que no tiene Licencia ni autorización de Medio Ambiente del Gobierno Vasco. Por todo ello, pregunta BILDU:

1.-¿ Es LEGAL ante este Ayuntamiento la actividad del Campo de Tiro que regenta el CLUB DE OLABERRIA ? SI o no?

Y solicitamos que su respuesta conste en acta

**Y ante esto PROPONEMOS**

**1.-No APOYAR la decisión del alcalde de no cerrar cautelarmente el Campo de Tiro**

**2.-Pedir al Ayuntamiento el Cierre cautelar del Campo de Tiro**, que es lo que legalmente hay que hacer, para poder retomar el tema y estudiarlo desde todos los puntos de vista, para que cumpla la normativa medio-ambiental, así como los principios de transparencia democrática que cualquier ayuntamiento debe a sus ciudadanos.

**3.-Finalmente, una petición formal.** El recurso contra la resolución del Ayuntamiento de Olaberria, de fecha de 22 de mayo de 2011 , fue firmado por varios olaberritarras, cuyos nombres deben aparecer, para reflejar la pluralidad del grupo que ha interpuesto dicho recurso.

Olaberriko Udalak 95/2011 ALKATETZA-EBAZPENAren berri eman digu.

Idazkariari zuzendutako galderari dagokionez, Idazkariak ezetz erantzuten dio.

Ondoren, Alkateak hitza hartzen du zera adierazteko: esandako guztiarekin ados dagoela, ukatzen den eskaera bakarra itxiera kautelarrarena dela, gai hori epaile baten azterketapean baitago eta epaile berak aginduko dituela hartu beharreko

En cuanto a la pregunta dirigida a la Secretaria, ésta responde que no.

A continuación el Alcalde toma la palabra para exponer lo siguiente: que está de acuerdo con lo manifestado por el Sr. Sarasola y que lo único en lo que se discrepa es en el cierre cautelar del campo de tiro, puesto que ese tema está en manos

neurriak.

de un juez y ese mismo juez será el que ordene las medidas a tomar.

Bestalde, jarraitzen du Alkateak, aipatutako Erain enpresak egindako azterlanaren inguruan, bere garaian orain lizitaziora aterako den Altuneko betelanaren lursailarekiko egindako azterlan bat izan zela, bere garaian tiro platoa hara eramateko intentzioa baitzegoen eta ez egun tiro platoa dagoen lursailarekiko.

Por otro lado, prosigue el Alcalde, en cuanto al estudio realizado por la empresa Erain, ese trabajo no se realiza sobre el campo de tiro existente en la actualidad, sino sobre los terrenos en los que se va a licitar el relleno en Altune, ya que en su día, cuando ese estudio se llevó a cabo, se pensó en el traslado del campo de tiro a la zona de Altune.

Sarasola jaunak, gaiarekin jarraituz, galdera hauek luzatzen dizkio Alkateari:

- Legeztatzea baldin bada diru publikoarekin egingo da?
- Kontrolatzen al da tiro platoa kudeatzen ari den elkartearen gestio ekonomikoa?

El Sr. Sarasola, siguiendo con el tema, pregunta al Alcalde:

- En caso de que se legalice, se realizará con dinero público?
- Se controla la gestión económica de la asociación que explota el tiro al plato?

Bai Sarasola bai Aldasoro jaunak elkarte horren kontu balantzeak eskatu eta aztertzeko eskatzen dute.

Los Sres. Sarasola y Aldasoro solicitan que se pidan a esa asociación y se estudien los balances de cuentas.

Alkateak galdera hauei erantzunez zera adierazten du:

- Tiro platoa udalarena denez, ez da baztertzen legeztapen prozeduran diru publikoa erabiltzearen aukera.
- Bestalde, tiro zelaia kudeatzen ari den elkarteari urteko balantze ekonomikoak eskatuko zaizkio.

En respuesta a estas preguntas el Alcalde manifiesta lo siguiente:

- Teniendo en cuenta que el tiro al plato es del Ayuntamiento, no se descarta la posibilidad de invertir dinero público en su legalización.
- Por otro lado, se le solicitarán a la asociación que está gestionando el tiro al planto los balances económicos.

Jose Bernardo Aldasoro OHE taldeko zinegotziak erregu-galdera hauek planteatzen ditu:

El concejal del grupo OHE plantea los siguientes ruegos / preguntas:

- **Herri-guneko kalearen ixtea**

- **Cierre de la calle del casco**

Azkeneko plenoan galdetu zuela ia noiz erabaki behar zen honen inguruan eta hitz egin zela hurrengo bilkurarako utziko zela gai honen inguruko erabakia.
Zerbait erabaki al da?

Afirma que en el último Pleno preguntó a cerca de cuándo se iba a decidir sobre el asunto y se dijo que se tomarían decisiones en el siguiente Pleno.
Se ha decidido algo?

Alkateak erantzuten dio ez dela ezer erabaki.

El Alcalde le responde que no se ha decidido nada.

Sarasola jaunak dio lan batzordeetan kalea ixtea erabaki zela, orduak erabakitzeke geratu baldin baziren ere.

El Sr. Sarasola afirma que en las comisiones de trabajo se decidió cerrar la calle, quedándose sin concretar las horas.

Alkateak dio lan batzordeetan horri buruz hitz egin zela, ez zela erabakirik hartu erabakiak Batzarrean hartzen direlako.
Horretaz gain, momentuz ez da komenigarria ikusten orain kalea ixtea, obrak baitaude inguruan eta obretako kamioiak hortik pasatu behar direla, dena den, kalea ixteko eskaera hori kontutan hartuko dela.

El Alcalde responde que si bien se habló del tema en las comisiones de trabajo, no se decidió nada, puesto que las decisiones se toman en el Pleno.
Además, teniendo en cuenta que hay obras alrededor, no se ve conveniente de momento el cerrar la calle, aunque se tomará en cuenta la propuesta planteada.

Batzarrera bertaratutako pertsona batek honako aipamen hauek egiten ditu:

- Tiro zelaiaren aurka dagoen taldearen izenean, BILDU taldeari ezkerrak eman nahi dizkio gai honen inguruan beraien kezkak jasotzeagatik.

- Prebarikazioaren inguruan diño, autoritate eta funtzionario publikoen prebarikazioa 1995. urteko Kode Penalean arautzen dela, zehazki, XIX. Tituloko I. Kapituloan. Eta bereziki, gomendatzen du 404, 405 eta 406. artikuluen irakurketa.

Una persona presente en el Salón de Plenos realiza las siguientes consideraciones:

- En el nombre del grupo que se posiciona en contra del tiro al plato, da las gracias al grupo BILDU por haber tenido en cuenta todas sus inquietudes.

- Manifiesta en torno a la prevaricación, que la prevaricación de autoridades y funcionarios públicos se regula en el Código Penal de 1995, en concreto en el Título XIX, Capítulo I y recomienda la lectura de los artículos 404, 405 y 406.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura ordu batak hogei gutxi direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.**

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las doce y cuarenta minutos, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**